

Baserritar giroa nagusi gaurkoan

■ Santa Ana egunak emango die amaiera aurtengo jaii. ■ Sagardo dastaketa ere iragartzen da Foruen Enparantzan. ■ Baserritarrei zuzendutako ekitaldiak prestatu dira egunean zehar.

Astigarragako jaiak beren azken egunera iritsi dira eta Santa Ana eguna bereziki herriko baserritarrei zuzenduta ospatuko da. Honela, gaurkoan ere izango da zer ikusi eta eginik sagardo dastaketak eta herri kirol saioak bilduko dituelarik herritar gehienak. Atzo xiri-miri artean burutu ziren ia ekitaldi gehienak eta gaurkoan horixe bakarrik eskatzen dute Astigarragakoek, eguraldiak pixka bat laguntzea. Ea hala den.

EGIN

Zipotza elkartearen eta herri kirol batzordearen eskutik datoz Santa Ana eguneko ekitaldiak beren helburua herriko baserritarrek parte hartzea eta festa herrikoia egitea izanik.

Goizeko 8etan iragartzen da diana oheratu gabeak kalean bildu eta lo daudenak esnarazteko. Ondoren, 9etan dulzaineroak eta lizaroren trikitixa iragartzen dira 9.30etan Zubietako Zapan Zarrei lekua egiteko.

11etan nekazal tresnak lantzen dituzten artisauak beren lana nola burutzen duten erakutsiko diote Foruen Enparantzan ikusi nahi duenari. Azken urteotan prestatutako ekitaldia da berau eta iaizkoan kupelen inguruan izan bazen gaurkoan Legorburuk kirtenak eta Galparsorok aulkiak egingo dituzte ikusleen begiradapean.

Eta ikusteaz gain gaur Astigarragara hurbiltzen direnek sagardoa dastatzeko aukera ere izango dute 11.30etatik aurrera. Eguerdian, berriz idi dema prestatu dute 2.000 kiloko harriaz, tartean Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsoarien saioa izanik. Ondoren, eta goiz parteko egitarauari amaiera emanez bazkia izango da.

Jaialdi bikaina

Arratsaldeko 6etan hasiko dira berriz ekitaldi ofizialak herri kirol jaialdiarekin eta bertan zailuetan gustoko saiorik izango da. Alde batetik, aizkol preba burutuko da lehenengo aldiz herritarren artean, aurreko urtetan aiz-

kolari afizionatuek hartzen baituzten parte.

Honekin batera gizon proba ere jokatu da, Euskadiko txapelketaren barne antolatu eta hiru egunetan zehar burutu beharrekoa. Azkenik, saioari amaiera emateko belar zoatza bat jarriko da plazan eta animatzen diren herritarrek bukatu gabe dagoen belar pilo osatu egin beharko dute honen inguruan antolatzaileek sorpresak ere iragartzen dituztelarik. Ekitaldi hau ere gaur izango da lehen aldiz.



Gaurko egitarauan aurrera egingez, gaueko 11.30etan Trakets taldeak alaituriko berbera izango da ondoren Zamorano Caballer-en su artifizialak eta zezensuzkoa.

Erakusketa

Aipatu beharrekoa frontoian festek irauten duten bitartean zabalik dagoen erakusketa bat. Bertan herriko baserrien tresneria ikusgai dago. Etnogintza kolektiboak egin duen lanaren emaitza da berau eta udal ardura-dunen nahia litzateke orain ikusgai dagoen materiala gorde eta erakusketa finko bat prestatzea.

Kultur Etxean ere beste erakusketa bat dago zabalik pinturaren inguruan.

Honekin batera txosnak Tomas Alba kalean eta barrakak Anibarreko gunean daude kokaturik. Hauze da gaurko Astigarragan prestatutako baina bertara inguratzen direnek seguruenik aurkituko dute beren aldetik zer ospaturik. Beraz, aprobezatu azken egun hau.



Umek beren dantzarako abilezia erakutsi zuten. Behean, baserriko tresnen erakusketa.

A. CANELLADA



LIZARDI

Baserria

- Mota guztietako lore eta landareak.
- Prezio ezin hobekak.
- Koronak • erramuak • lore zentruak

Tel. 55 03 31 ASTIGARRAGA

CICLOS GUTIERREZ

REPARACION Y VENTA
DE
BICICLETAS Y ACCESORIOS

Arrobitxulo, 3
Telf.: 55 10 48
ASTIGARRAGA

Distribuciones EZKERRO

JAMONES  EMBUTIDOS

Plaza Errekatox, 4 • Tf. 55 52 81 • 20015 Astigarraga

ISABEL

Janari
Denda

• Fruitu eta
Urdaitegi
bereziak

C/ Tomas Alba, 11
Te
AS